

BALIO PROPOSAMENA

Gure proiektu honen helburualana dela eta, seme alabekin etxean egotea ezinezkoa duten **familiei laguntzea da**, haien seme-alabak gaixorik daudenean.

Horrela, kezkatu gabe geratzeko leku bat eskainiko diegu, umeei behar duten arretarekin eta une oro gurasoei informazioa emanez.

Hurtzaindegiak bi zerbitzu aukera izango lituzke: bata, goizeko 7etan hasi eta gaueko 10 etan bukatuko dena eta bestea, 24 orduko zerbitzua, gaueko txandetan lan egiten duten gurasoak kontuan hartzen ditugulako.

Gure asmoa da, gela desberdinak egitea, haurrak sintoma bakoitzeko bereizita egoteko. Horretarako, gela bakoitzean langile desberdinak izatea, gainerako haurrekin harremanik izan gabe. Beste aldetik, beste gela zabalago bat izango genuke gaixotasun gabeko haurrentzako.

Proiektu hau oso berezia eta bakarra da. Horregatik pentsatzen dugu bezeroen artean arrakasta izango dugula eta gure zerbitzuak ordaintzeko prest egongo direla. Bakarra dela esaten dugunean, esan nahi dugu gure zerbitzu eskaintzak egokiak direla. Hau da, **kalitazteko hartzandegia** izango da, segurtasun neurriekin. Gaixotasun kutsakor duten umeei, gela alden du batean egongo dira beharrezko atentzioa eskainiz.

Beste aldetik, gure langileak profesionalak izango dira, magisteritza ikasketak izango dituzte eta osasun arloko ikasketekin osatuta.